



ZORRAREN EGOERA

Ondoko tauletan, urte amaierako zorraren egoera zehaztuta dago:

SITUACIÓN DE LA DEUDA

En los cuadros siguientes se detalla la situación de la deuda a fin de año:

ZORRAREN EGOERA 2014-12-31N / SITUACION DE LA DEUDA A 31-12-2014

(Mila eurokotan/ Miles de euros)

EPE LUZERA LARGO PLAZO	Saldo bizia 2013-12-31n Saldo vivo 31-12-2013	Saldo bizia 2014-12-31n Saldo vivo 31-12-2014	Saldo Erabilia Saldo Dispuesto
EIBren mailegua AP-1/ Préstamo BEI AP-1	75.350,00	70.885,00	70.885,00
SANTANDERren mailegua / Préstamo SANTANDER	16.400,00	0,00	0,00
BCO. SABADELLen mailegua/ Préstamo BCO. SABADELL	20.000,00	0,00	0,00
CAIXABANKen mailegua / Préstamo CAIXABANK	35.000,00	30.000,00	30.000,00
BANKIAre mailegua / Préstamo BANKIA	28.000,00	24.000,00	24.000,00
KUTXABANKen mailegua / Préstamo KUTXABANK	17.280,00	11.520,00	11.520,00
BANKOAre mailegua / Préstamo BANKOA	12.000,00	8.000,00	8.000,00
CAIXABANKen 2. mailegua / 2º Préstamo CAIXABANK	12.000,00	8.000,00	8.000,00
BCO. SABADELLen 2. mailegua/ 2º Préstamo BCO. SABADELL	16.400,00	8.200,00	8.200,00
KUTXABANKen 2. mailegua / 2º Préstamo KUTXABANK	10.260,00	8.550,00	8.550,00
BANKIAre 2. mailegua / 2º Préstamo BANKIA	15.000,00	10.000,00	10.000,00
BANKOAre 2. mailegua / 2º Préstamo BANKOA	10.000,00	8.000,00	8.000,00
BBVAre mailegua / Préstamo BBVA	15.000,00	12.000,00	12.000,00
BANKINTERren mailegua / Préstamo BANKINTER	18.340,00	15.720,00	15.720,00
EUSKO JAURLARITZAre mailegua / Préstamo GOBIERNO VASCO	18.000,00	14.400,00	14.400,00
KUTXABANKen 3. mailegua / 3º Préstamo KUTXABANK	-	14.100,00	14.100,00
DEUTSCHE PFANDBRIEFB.en mailegua / Préstamo DEUTSCHE PFANDBRIEFB.	-	42.000,00	42.000,00
Kreditu Lerroak / Líneas de credito	276.950,00	276.950,00	222.000,00
EPE LUZERA GUZTIRA / TOTAL LARGO PLAZO	595.980,00	562.325,00	507.375,00

(Mila eurokotan/ Miles de euros)

ZORRAREN EGOERA 2014-12-31N / SITUACIÓN DEUDA A 31-12-2014	ZENBATEKOA IMPORTE
FORMALIZATUA / FORMALIZADA	562.325,00
FORMALIZATU GABEKO ZOR BAIMENDUA / DEUDA AUTORIZADA PTE DE FORMALIZAR	18.000,00
ZOR DEUSEZTATUA / ANULACIÓN DEUDA	-18.000,00
ZOR BAIMENDUA GUZTIRA / TOTAL ENDEUDAMIENTO AUTORIZADO	562.325,00





Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2014. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen zituen 2013ko abenduaren 23ko 9/2013 Foru Arauak, 2014ko ekitaldirako zor baimenduaren muga 580.325 mila eurotan ezartzen zuen. 2013. urtearen amaieran, ordea, zor baimenduaren zabalkuntza egin zen eta GFaren zorraren oreka lortzeko ibilbidea aldatu zen. 2014ko ekitaldian, zorra murriztu da eta azkenean ekitaldia ixtean saldoa 562.325 mila eurokoa izan da.

La Norma Foral 9/2013, de 23 de diciembre, por la que se aprobaban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2014, establecía el límite de la deuda autorizada para el ejercicio 2014 en 580.325 miles de €. A finales de 2013, se realizó una ampliación del endeudamiento autorizado por importe de 18 millones de euros que modificó la trayectoria de reequilibrio de la deuda de la DFG. Durante el ejercicio 2014 se ha reducido la deuda, y finalmente el saldo a cierre del ejercicio ha ascendido a 562.325 miles de €.

Ondoko grafikoetan ikus daiteke nolako bilakaera izan duen zor bolumenak aurrekontu propioaren aldean.

En las gráficas siguientes se detalla la evolución del volumen de deuda en relación al presupuesto propio.





2014. URTEKO BALANTZEA

Europar Batasunaren barnean aurrekontu politikaren lehentasunezko helburua defizit publikoa murriztea da, baita baterakuntza fiskalari dagozkion helburuak betetzea ere. Kontu publikoen onbideratzea politika ekonomikoaren helburu bihurtu da.

Bateratasun fiskala bermatuko duten ekimen asko jarri dira abian, administrazio publikoen defizita arinduko dutenak hain zuzen ere; epe ertainari begira, helburua aurrekontu oreka estrukturala eskuratzea eta zor publikoaren goranzko dinamika iraultzea da, finantzaketa maila iraunkorretara iristearren.

Inguru horretan du ezarria GFAk bere zorpetze-bidea, eta 2014ko ekitaldiak finkatzen du aurrekontu orekari dagokionez aurreko urteetan ezarritako joera. 2014an zorpetzea eta bere erabilera baldintzatuko duten gertakari nagusien artean honako hauek azpimarratu ditzakegu:

- Zorpetzearen birfinantzatzea, epemugak luzatzea helburu izanik.
- Zerga-bilketa likidoak 2013an baino jokaera hobea izan du. Ekitaldiak hasiera oso ona izan du, BEZaren urteko bilketari esker; zerga-bilketa likidoa %5,4an finkatzea lortu du.
- Eusko Jaurlaritzak ematen dituen gerorapenen erabilpena iraunkorra da epe laburrerako finantzaketa iturri gisa, diruzaintzako tentsioei aurre egiteko; horiek sortzen dira zerga-bilketarekiko ekarpen egutegia desfasatua dagoelako.

a) EGINDAKO ERAGIKETAK

2014an GFAk epe luzerako bi mailegu berri formalizatu eta beste bi aldaberritu ditu.

2014ko apirilaren 11ko, 279/2013 Foru Aginduaren bidez, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak 2014ko aurrekontu-defizitari zegokion epe luzerako 74,1 milioi euroko epe luzerako finantzaketa eragiketa baimendu zuen.

BALANCE DEL AÑO 2014

Dentro de la Unión Europea, el objetivo prioritario de la política presupuestaria es la reducción del déficit público y el cumplimiento de los objetivos de consolidación fiscal. El saneamiento de las cuentas públicas se ha convertido en el objetivo de la política económica.

Se están adoptando numerosas iniciativas para garantizar la consolidación fiscal que permita reducir el déficit del conjunto de las administraciones públicas, buscando a medio plazo alcanzar el equilibrio presupuestario estructural y revertir la dinámica alcista de la deuda pública hasta lograr niveles de financiación sostenibles.

En este entorno, la DFG tiene planteado su senda de endeudamiento, y el ejercicio 2014 consolida la tendencia de años anteriores de equilibrio presupuestario. En cuanto a los hechos más significativos de 2014 que condicionan el endeudamiento y su utilización, podríamos destacar los siguientes:

- La refinanciación del endeudamiento, buscando el alargamiento de sus vencimientos.
- La recaudación líquida ha mostrado un comportamiento mejor que en 2013, con un inicio de ejercicio muy bueno gracias a la recaudación anual de IVA, que ha hecho que la recaudación líquida se sitúe en el 5,4%.
- Una constante utilización de la figura del aplazamiento del Gobierno Vasco como fuente de financiación a corto plazo para solucionar las tensiones de Tesorería, que se generan como consecuencia de un calendario de aportaciones desfasado con respecto a la recaudación.

a) OPERACIONES REALIZADAS

En 2014 la DFG ha formalizado dos nuevos préstamos a largo plazo y ha procedido a la novación de otros dos préstamos.

Por Orden Foral 279/2014 de fecha 11 de abril de 2014, la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas autorizó una operación de financiación a largo plazo por importe de 74,1 millones de €, correspondiente al déficit presupuestario del ejercicio 2014.



Baina, legealdi honetarako zorpetzeari buruz ezarrita zegoen politika, zorra mantentzea zen. Beraz, kontuan hartuta 2013ko ekitaldiaren likidazioan sortu zen superabita, eta aurrekontu egonkortasuna arautzen duen Legearen seigarren xedapen gehigarriaren arabera, hartu zen erabakia zor berriari zegokionez, 56,1 milioi euro formalizatzea izan zen; horrela, zorraren maila berrorekatuko zen.

2014ko ekainaren 9an eta 16an, GFAk bi mailegu-kontratu sinatu zituen Kutxabank eta Deutsche Pfandbriefbank-ekin hurrenez hurren.

Maileguen hautaketa egiteko erabilitako irizpideak kostua eta amortizazio-egutegiak izan ziren. Maileguak 5 eta 7 urtera formalizatu ziren eta datozen aurrekontu-ekitaldiei begira, zorpetze-egitura orekatu bat sortzen lagundu dute. Era berean, eragiketei aplikatzen zaien tasa finkoa da, eta horrek interes tasen igoera posible baten arriskua arintzen du.

Maileguek honako ezaugarriak dituzte:

ENTITATEA: Kutxabank
ZENBATEKOA: 14,1 milioi euro
EPEA: 5 urte
ITZULKETA: 5 urteko kuota, bakoitza 2,82 milioi eurokoa

ENTITATEA: Deutsche Pfandbriefbank
ZENBATEKOA: 42 milioi euro
EPEA: 7 urte
ITZULKETA: 7 urteko kuota, bakoitza 6 milioi eurokoa

Bestalde, Foru Agindu berdinean mailegu eragiketen birfinantzaketa/aldaberritzea baimendu zen, 25 milioi eurora arte hain zuzen ere. Aurreikusi zen bezala, proposatutako eragiketen diferentziales nabarmen egin zuten behera. Arrazoiak izan ziren, zor publikoko merkatuetako tentsioen amaiera, espainiar finantza-sektorearen berregituratzearen burutzea, likidezi oparotasuna eta EBZren moneta politika. Beraz, agertoki horretan, GFAk beharrezkotzat jo zuen bere zorpetzea merkatuak eskaintzen zituen baldintza

Sin embargo, la política en materia de endeudamiento establecida para la legislatura era el mantenimiento de deuda. Por tanto, teniendo en cuenta el superávit generado en la liquidación del ejercicio 2013 y atendiendo a la disposición adicional sexta de la Ley de estabilidad presupuestaria, finalmente se tomó la decisión de formalizar nueva deuda por importe de 56,1 millones de euros, con lo que se reequilibrarían los niveles de deuda.

Así, el 9 y el 16 de junio de 2014 se firmaron contratos de préstamo con Kutxabank y Deutsche Pfandbriefbank respectivamente.

La elección de los préstamos se hizo atendiendo tanto a criterios de coste como a su calendario de amortización. Los préstamos se formalizaron a 5 y 7 años, por lo que contribuyen a crear una estructura de endeudamiento estable de cara a los próximos ejercicios presupuestarios. Asimismo, el interés a aplicar a las operaciones fue a tipo fijo, lo que contribuye a mitigar el riesgo de una posible subida de los tipos de interés.

Los préstamos tienen las siguientes características:

ENTIDAD: Kutxabank
IMPORTE: 14,1 millones de €
PLAZO: 5 años
REEMBOLSO: 5 anualidades de 2,82 millones de €

ENTIDAD: Deutsche Pfandbriefbank
IMPORTE: 42 millones de €
PLAZO: 7 años
REEMBOLSO: 7 anualidades de 6 millones de €

Por otro lado, en la misma Orden Foral se autorizaba la refinanciación/novación de operaciones de préstamo hasta un importe máximo de 25 millones de euros. Tal y como se preveía, los diferenciales de las operaciones propuestas se redujeron de manera muy notable, como consecuencia del fin de las tensiones en los mercados de deuda pública, la culminación de la reestructuración del sector financiero español, la abundante liquidez y la política monetaria del BCE. Por tanto, en este escenario, la DFG consideró necesario adecuar su



hobeetara egokitzea, eta ahal zen neurrian, bere karga finantzarioa murriztea.

Bereziki, bi mailegu eragiketa aldaberritu ziren. Lehengoa, 2012an Kutxabankekin formalizatutako mailegua izan zen; diferentziala 395 oinarritzko puntutatik 92ra pasa zen. Bigarrena, Bankinterrekin 2013an formalizatutakoa izan zen eta diferentziala 375 oinarritzko puntuetatik 110era pasa zen.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzari egiten zaizkion ordainketen egutegian dauden desfaseak direla-eta, ekarpenen ordainketari dagokionez, ezinbestekoa izan da gerorapenak eskatzea.

b) EGITURA ABENDUAREN 31n

2014ko abenduaren 31n, honelakoa da formalizatutako zorpetzearen egitura:

endeudamiento a las mejores condiciones ofrecidas por el mercado y rebajar en la medida de lo posible su carga financiera.


En concreto, se procedió a la novación de dos operaciones de préstamo. La primera de ellas corresponde al préstamo formalizado con Kutxabank en 2012 cuyo diferencial pasó de los 395 puntos básicos a 92. El segundo, se formalizó con Bankinter en 2013 y el diferencial a aplicar pasa de 375 puntos básicos a 110.

Por último, los desfases existentes en el calendario de pagos al Gobierno Vasco han convertido en indispensable el recurso a los aplazamientos en el pago de las aportaciones.

b) ESTRUCTURA A 31 DE DICIEMBRE

La estructura del endeudamiento formalizado al 31 de diciembre de 2014 se refleja en la gráfica siguiente.

FORMALIZATUTAKO ZORRAREN EGITURA 14/12/31n ESTRUCTURA DEL ENDEUDAMIENTO FORMALIZADO AL 31/12/14



Egiturazko finantzaketaren pisua apur bat jaitsi da GFaren finantziazio estrukturen, zorpetze maila jaitsi baita, kreditu-lerroen bolumena berdin mantendu den bitartean.

La deuda estructural ha perdido un poco de peso en la estructura financiera de la DFG al haber reducido el nivel de endeudamiento, manteniendo el volumen de las líneas de crédito.



Finantziazioaren egitura maileguez gain kredituekin osotzen da. Azken hauek dira GFAk urtean zehar dituen diruzaintza beharretara moldatzeko figurarik egokienak, eskaintzen duten malgutasunagatik. Alde batetik, ez dute kosturik erabiltzen ez badira (Kutxabankekin berritutako azkenek ezik, haiek erabilgarritasun komisioa baitaukate) eta bestetik, baldintza onuratsuagoak dituzte -marjina txikiagoa eta epe desberdinetara interes tasa finkatzeko aukera eskaintzen baitute-.

c) BATEZ BESTEKO KOSTUA ETA BATEZ BESTEKO BIZITZA

Banku-arteko tasak minimo historikoetan jarraitu dute urtean zehar, eta ondorioz zorraren batez besteko kostuak maila baxuan jarraitzen du. GFAk egoera honi etekin handia atera dio, zorraren %63,8 tasa aldakorrean baitu formalizatua.

Bestalde, ez dirudi 2015ean interes tasen egoera nabarmena egongo denik. 2014an EBZk bere interes tasa bitan jaitsi zuen eta 2015ean aktiboen erosketa plana jarriko du habian; horrek merkatuetan likidezia handitu eta interes tasak igotzea saihestuko du. Beraz, badirudi, GFAk kostu baxuetan finantzatzeko aukera izaten jarraituko duela.


La estructura de financiación vía préstamo se completa con el recurso al crédito. La flexibilidad que dan las líneas de crédito, sin coste en el caso de no utilización (excepto en las últimas renovadas con Kutxabank, que incluyen una comisión de disponibilidad), y sus condiciones más beneficiosas (menor margen y posibilidad de fijación de tipo de interés a diferentes plazos), hacen de esta figura la elección idónea para adaptarse a las necesidades de tesorería de la DFG a lo largo del año.

c) COSTE MEDIO Y VIDA MEDIA

Los tipos interbancarios han permanecido en mínimos históricos a lo largo del año y han permitido que el coste medio de la deuda siga en niveles muy bajos. La DFG se ha podido beneficiar de esta situación porque el 63,8% de su deuda está formalizada a tipo variable.

Por otro lado, no parece que durante el 2015 se vaya a producir una escalada de tipos de interés. El BCE redujo su tipo de interés en dos ocasiones en 2014 y durante el 2015 pondrá en marcha el plan de compra de activos que aumentará la liquidez de los mercados y evitará subidas de los tipos de interés. Por tanto, parece que la DFG va a poder seguir financiándose a un coste bajo.

ZORRAREN BATEZ BESTEKO TASAREN EBOLUZIOA EVOLUCIÓN TIPO MEDIO DE LA DEUDA






Formalizazio berriek izan dituzten epeak eta 2015-2016 aldian dagoen epemugen kontzentrazioa direla-eta, 2014 urtea ixtean batez besteko bizitza 3 urte eta hilabete 1ean kokatu da.

Los plazos de las nuevas formalizaciones y la concentración de vencimientos en el periodo 2015-2016 han situado la vida media en 3 años y 1 mes al cierre de 2014.

ZORRAREN BATEZ BESTEKO IRAUNALDIAREN EBOLUZIOA EVOLUCIÓN VIDA MEDIA DE LA DEUDA



d) ORDAINKETA INTERESENGATIK

2014an interesengatik egindako ordainketak 9,4 milioi eurokoak izan dira, 2013an baino 0,1 milioi euro gehiago. Zorraren batez besteko erabilera 2013koa baino zerbait txikiagoa izan bada ere, interes tasa apur bat altuagoa izan da.

d) PAGO POR INTERESES

Los pagos por intereses en 2014 han sido de 9,4 millones de €, 0,1 millones de € más que en 2013. A pesar de que la disposición media de la deuda ha sido ligeramente inferior a la de 2013 el tipo de interés ha sido algo más elevado.

e) EMANDAKO ABALAK

2014ko ekitaldia ixtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako abalen zenbatekoa 490,7 milioi eurokoa da, Europako Inbertsio Bankuaren eta Bidegi SA foru merkataritza-sozietatearen artean formalizatutako mailegu eragiketak bermatzen dituen.

e) AVALES CONCEDIDOS

Al cierre del ejercicio 2014, la DFG tiene concedidos avales por importe de 490,7 millones de euros como garantía de operaciones de préstamo formalizadas entre el Banco Europeo de Inversiones y la sociedad mercantil foral Bidegi S.A.

Abal hauek 2007 eta 2009 bitartean eman ziren. 2014an bermatutako zorraren zenbatekoa jaitsi da, BIDEGI amortizatzen ari zelako GFAk abalak emanda dituen maileguak.

Estos avales fueron concedidos entre 2007 y 2009. En 2014 disminuyó el importe de la deuda avalada porque BIDEGI está amortizando los préstamos avalados por la DFG.

f) FORU DIRUZAINZAREN KUDEAKETA

2014ean diruzaintzako soberakinen inbertsioak apur bat egin zuen gora (25,8 milioi euro 2013ko 18,5 milioiren aldean) eta

f) GESTIÓN DE LA TESORERÍA FORAL

En 2014 aumentó un poco la inversión en excedentes de tesorería (25,8 millones de euros frente a 18,5 millones de euros en



Eusko Jaurlaritzari eskatutako gerorapen politikari esker, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diruzaintzak soberakinak izan ditu ekitaldiko 43 egunetan. Berriz ere, azpimarratzekoa da egutegiaren aldetik zerga sarreren eta erakundeekiko konpromisoen ordainketen artean egitura-desoreka handia dagoela; ondorioz, diruzaintza fluxuak nabarmen ari dira hondatzen. Egoera hori bideratzeko helburuarekin, lan-talde bat sortu da Eusko Jaurlaritzarekin eta beste bi aldundiekin batera.

Diruzaintzak izan duen errentagarritasunak 39,7 mila euroko sarrera finantzarioak ekarri ditu.

2014. urtean, aurrekontuko 43.276 ordainketa-eragiketa egin dira, kanpoan utzita kupoa, ekarpenak eta zerga itzulketak; eta ordainketa aginduen eta zenbatekoen banaketa ondoko hau:

2013), y, gracias a la política de aplazamientos concedidos por el Gobierno Vasco la Tesorería de la DFG se encontró en situación excedentaria en 43 días del ejercicio. Por otra parte, volver a señalar que el importante desajuste estructural en el calendario de los cobros tributarios y los pagos por compromisos institucionales, hacen que los flujos de tesorería sigan deteriorándose de forma significativa. En este sentido, comentar que se ha creado un grupo de trabajo con el Gobierno Vasco y las otras dos Diputaciones con el objetivo de reconducir esta situación.

La rentabilización de la tesorería ha supuesto unos ingresos financieros de 39,7 miles de euros.

A lo largo del año 2014 se han efectuado 43.276 operaciones de pago presupuestarias, exceptuando cupo, aportaciones y las devoluciones tributarias, y con la siguiente distribución de órdenes de pago e importes:

ORDAINKETAK PAGOS	ORDAINKETA AGINDU GUZTIEN GAINEAN S/TOTAL ORDENES DE PAGO	ORDAINKETA GUZTIEN GAINEAN S/TOTAL PAGOS
5.000 €-tik beherakoak < 5.000 €	73,25%	3,06%
5.000 eta 50.000 € bitartekoak Entre 5.000 y 50.000 €	20,66%	15,49%
50.000 €-tik gorakoak > 50.000 €	6,09%	81,45%

Ordainketa gehienak zenbateko txikikoak izan dira (5.000 €-tik beherakoak), eta fakturei, diru-laguntzei eta funtzionamendu gastuekin lotutako transferentziei dagozkie. Hartzaileak banakako pertsonak izan dira.

La mayoría del número de pagos realizados se concentra en los de pequeño importe (<5.000 €), correspondiendo a facturas, subvenciones y transferencias relacionadas con gastos de funcionamiento, siendo los destinatarios personas individuales.

5.000 eta 50.000 € bitarteko ordainketak erakundeei edo enpresei egindako ordainketak dira (egoitzak, elkarteak, fundazioak, etab.), eta badira, halaber, zenbateko txikiko inbertsioekin lotutako gastuak ere (adibidez, desjabetzeak, konponketa lanak, inbertsiorako laguntzak).

Los pagos comprendidos entre 5.000 y 50.000 € se corresponden con instituciones o empresas, como pueden ser residencias, asociaciones, fundaciones, etc., así como gastos relacionados con inversiones de pequeño volumen, por ejemplo, expropiaciones, trabajos de reparación y ayudas a la inversión.

50.000 €-tik gorako ordainketetan hauek sartzen dira: obra ziurtapenen ordainketa, udalenzako transferentziak (UFFF) eta beste erakunde batzuei egindako transferentzia handiak.

Los pagos de más de 50.000 € se corresponden con el pago de certificaciones de obras, transferencias a ayuntamientos por el FFFM y transferencias de gran importe a otras instituciones.



g) KAUDIMENA ETA BERMEA

Gipuzkoako lurralde historikoaren egoera ekonomikoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantza egoerak azken urteetan izan zuten bilakaera onari esker, 2004an kalifikazioa berraztertu ondoren, mailarik gorenean finkatu zen. Hain zuzen ere, 'AAA' kalifikazioa lortu zuen estatu azpiko lehen erakundea izan zen. Era berean, Moody's eta FitchRatings-ek 2009. urtera arte berretsi zuten kalifikazio hura.

Baina 2010. urteaz geroztik kalifikazio hauek beherantz hainbat berrikuspen izan dute zerga bilketaren erorketa eta finantzaketa beharren igoeraren ondorioz. 2012ko urrian Fitch-ek GFaren rating-a 'A'-ra jaitsi zuen (perspektiba negatiboarekin) hazkunde aurreikuspenaren okertzea zela eta. Estatu espainiarrak duen rating-aren eragina ere erabakigarria da, GFAk ezin baitu mantendu hiru mailako diferentzia Estatuaren kalifikazioarekiko. Horrela, 2013an Fitchek Espainiaren perspektibak egonkorrera aldatu zituen, eta ondorioz GFaren perspektibak ere egonkorak izatera pasa ziren. 2014. urtean, ekonomia eta zerga bilketa aurreikuspenen hobekuntza direla-eta, Fitch-ek GFaren rating-a "A"-n ezarri du, perspektiba egonkorrekin.

Beraz, GFaren rating-ak, Espainiako toki nahiz autonomia entitate multzoaren goiko mailan kokatua jarraitzen du eta horrek abantail finantzario bat ematen dio GFari.

g) SOLVENCIA Y GARANTÍA

La favorable evolución registrada en los años anteriores, tanto en la situación económica del T.H. de Gipuzkoa, como en la financiera de la DFG, permitió obtener en el 2004 la revisión al alza de la calificación hasta situarla en el nivel máximo, "AAA", siendo el primer ente sub-estatal en obtener esta calificación. Esta calificación fue ratificada tanto por Moody's como por FitchRatings hasta 2009.

Sin embargo, estas calificaciones han sido objeto de sucesivas revisiones a la baja desde 2010 como consecuencia de la caída de la recaudación y el aumento de las necesidades de financiación. En octubre de 2012 y debido al empeoramiento de las previsiones de crecimiento Fitch bajó el rating de la DFG a "A-" (perspectivas negativas). La influencia del rating de España es decisiva ante la imposibilidad de mantener una diferencia de tres niveles respecto a su calificación. Así, en noviembre de 2013 Fitch cambió las perspectivas de España a estables, por lo que las perspectivas de la DFG también pasaron a ser estables. En 2014, como consecuencia de mejoras en las previsiones económicas y de recaudación, Fitch ha fijado el rating de la DFG en "A" con perspectiva estable.

Por tanto, el rating de la DFG sigue estando en el rango superior del conjunto de entidades locales y autonómicas de España, lo que proporciona a la DFG una ventaja financiera.